tel: 943 302 202

Hasteko, sare sozialetan hasiko gara eta bertako plataformetan emango dugu gure proiektuaren berri.

Horrez gain, herrian bertan kartelak jarriko ditugu, sare sozialak ez dituztenei mezua helarazteko. Kartelean enpresaren telefono zenbakia ipiniko dugu dituzten zalantzak argitzeko.

Gainera, asteazkenero arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara udaletxeko arkupean egongo gara Interneteko sarbiderik ez dutenei proiektua azaltzeko prest.

Enpresaren salmentak ondo joanez gero proiektu berriak pentsatzen hasiko ginateke (Telefono mugikor berrerabiliak, telebistak…) eta enpresa Euskadi osora zabalduko genuke.

Jendeak gure berri jakin dezan Diario Vascon aipatzea eskatuko genuke eta baita Euskal Telebistan ere.